

BEGIRATU ETA ERLAZIONATU

Clic jarduerak Haur Hezkuntzarako (3-6 urtekoentzat)

Montse Vega 1997
mvega@pie.xtec.es

Itzuli du ORIXE TALDEAK
orixe@arrakis.es

Begiratu eta erlazionatu deritzan programa honetan zenbait jarduera sorta proposatzen ditut hiru eta sei urte bitarteko haurrek bi gaitasun hauek lantzeko. Sorta bakoitzarentzat izendatu ditudan adin egokitasunak gutxi gora beherakoak dira, eta irakaslea izango da kasu bakoitzean erabakiko duena bere ikasleentzat egoki diren ala ez, edo egin nahi duen lanerako egoki datozkion. Aurkezpen pantailan aurkituko dituzue sei jarduera sorten sarerrarako ikonoak. Bat aukeratu eta gainean klik egitea aski izango duzue sartzeko.



Jarduera honetan irudi bakoitza bere siluetaekin lotu behar da. Bereziki egokia da CLIC programarekin lehen aldiz dabiltzan. 3-4 urteko haurrentzat.



Irudi baten bi zatiak elkarlotzea da jarduera honen funtsa. Clic programarekin lehen kontaktoak egiten ari diren 3-4 urteko haurrentzat egokia.



Osatugabea den irudi bati lotu behar zaio falta zaion hura. 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.



Jarduera honetan irudi bati ongi erreparatu behar zaio eta hiru segunduren buruan gertatuko zaion aldaketa ohartu behar da. 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.



Berdintsuak diruditen hiru iruditan ezberdina zein den bilatu behar da jarduera honetan. 4 - 6 urte bitartekoentzat.



Elkarrekin zerikusia duten irudiak elkarlotu behar dira jarduera honetan. 4 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.

SILUETAK

Oso lan errazak biltzen dituen jarduera sorta bildu da multzo honetan, berez haurrak irudi bakoitza eta bere silueta elkarlotu besterik ez du egin behar. Horren ezagunak diren egurrezko enkaxezko jokoen funts bera du, alegia.

Txikientzat prestaturiko jokoa denez, erabilera errazekoa egin nahi izan dut, eta horregatik, bi botoi bakarrik ikus daitezke joko honetan, bata, hurrengo ariketara igarotzeko gezia eta bestea irteera atea. Izan ere, jarduerak berez igarotzen baitira batetik bestera, ikasleak erantzun egokia eman ahala.

Sarrera botoian klik eginez aurkezpen pantailara sartzen gaitu eta irudiaren gainean klik egindakoa jokoa hasiko da.

Sei jarduera hauetan jarrera ezberdinetan dauden hiru edo lau irudi erlazionatu behar dira. Haurrak siluetei erreparatu behar die eta irudiarekin asoziatzen duenarekin lotu behar du.

Jokoaren mekanika oso erraza da haurarentzat eta ez du helduaren laguntzarik behar izaten gehienetan.

BILA EZAZU BESTE ZATIA

Oso ariketa errazak biltzen dituen jarduera sorta da hau, hots, irudi baten bi zatiak elkartzea da haurraren zeregina. Puzzleak osatzeko teknika lantzen hasteko ariketatzat har liteke.

Txikientzat prestaturiko jokoa denez, erabilera errazekoa egin nahi izan dut, eta horregatik, bi botoi bakarrik ikus daitezke joko honetan, bata, hurrengo ariketara igarotzeko gezia eta, bestea, irteera atea. Izan ere, jarduerak berez igarotzen baitira batetik bestera, ikasleak erantzun egokia eman ahala.

Sarrera botoian klik eginez aurkezpen pantailara eramango gaitu eta irudiaren gainean klik egindakoa jokoa hasiko da.

8 ariketa edo jarduerak osatzen dute sorta hau, eta bakoitza bi pantailaz osaturik dago:

- Lehenengoan lau irudi agertzen dira eta haiei ongi erreparatzeko esaten zaigu.
- Hiru segundu beranduago bigarren pantaila agertzen da eta oraingoan lehengo irudiak bitan zaiturik eta barreiatu agertzen dira.

Haurrak irudi baten bi zatiak ongi lotzen dituenean, irudia konpondu egiten da.

Jokoaren mekanika oso erraza da eta beti bera jarduera hauetan guztietan, beraz, haurrak ez du helduaren laguntzarik behar izaten.

ZER FALTA ZAIO?

Jarduera sorta honetako ariketen bidez obserbazio edo behaketa gaitasuna eta arrazoinamendu lojikoa lantzen dira.

Txikientzat prestaturiko jokoa denez, erabilera errazekoa egin nahi izan dut, eta horregatik, bi botoi bakarrik ikus daitezke joko honetan: bata, hurrengo ariketara igarotzeko gezia eta, bestea, irteera atea. Izan ere, jarduerak berez igarotzen baitira batetik bestera, ikasleak erantzun egokia ematen dienean.

Sarrera botoian klik eginez, aurkezpen pantailara sartzen gaitu eta irudiaren gainean klik egindakoan jokoa hasiko da.

Tankera bereko 8 jarduera edo ariketek osatzen dute sorta hau:

- Eskuineko lehiatilan osatugabeko irudi bat agertzen da.
- Ezkerreko lehiatilan aldiz, hiru edo lau aukera eskaintzen dira, eta horietako bat izango da eskuineko irudiari falta zaionaren osagarria.

Haurrak irudiari falta zaion osagarria ongi aukeratzen duenean automatikoki irudia osatua geratzen da. Beraz, osagarria irudiari lotuta geratzen da.

Jokoaren mekanika oso erraza da eta beti bera ariketa jarduera honetako ariketa guztietan, beraz haurrak ez du helduaren laguntzaren beharrik izaten.

ZER ALDATU DA?

Ariketa sorta honetan obserbazio eta behaketa gaitasuna eta zorroztasuna lantzen dira.

Txikientzat prestaturiko jokoa denez, erabilera errazekoa egin nahi izan dut, eta horregatik, bi botoi bakarrik ikus daitezke joko honetan, bata, hurrengo ariketara igarotzeko gezia eta, bestea, irteera atea. Izan ere, jarduerak berez igarotzen baitira batetik bestera, ikasleak erantzun egokia ematen dienean.

Sarrera botoian klik eginez aurkezpen pantailara sartzen gaitu eta irudiaren gainean klik egindakoan jokoa hasiko da.

Jarduera sorta hau 8 ariketek osatzen dute, eta bakoitza bi pantailez osatua dago:

- Lehenengoan irudi bat edo irudi multzo bat ikusten da eta ongi erreparatzeko esaten zaigu.
- Hiru segundu beranduago bigarren pantaila agertzen da eta honetan irudiak aldaketaren bat izan du, baina zein?

Haurrak aldatu den gauzaren gainean klik egiten duenean, berriro ere irudia konpondurik agertuko zaio eta, horrela hurrengo ariketara igaroko da.

Jokoaren mekanika bat eta bera da ariketa guztietan eta, ondorioz, haurrak ez du helduaren laguntzarik behar izaten.

AURKI ITZAZU EZBERDINTASUNAK

Ariketa sorta honetan obserbazio eta behaketa gaitasuna eta zorroztasuna lantzen dira. Denborapasako joko ezagun horretan oinarritua dago, berez.

Txikientzat prestaturiko jokoa denez, erabilera errazekoa egin nahi izan dut, eta horregatik, bi botoi bakarrik ikus daitezke joko honetan, bata, hurrengo ariketara igarotzeko gezia eta, bestea, irteera atea. Izan ere, jarduerak berez igarotzen baitira batetik bestera, ikasleak erantzun egokia eman ahala.

Sarrera botoian klik eginez aurkezpen pantailara sartzen gaitu eta irudiaren gainean klik egindakoa jokoa hasiko da.

Joko-mekanika bera duten 21 ariketa edo jarduera daude:

- Hasieran erabat berdinak diren hiru pertsona aurkezten zaizkigu
- Geroxeago, hiruetako batek besteek ez duten zerbait du. Baina zer?

Haurrak besteak bezalakoa ez den irudia zuzen seinalatzen duenean, berriro agertuko zaio hasierako irudia eta, horrela, hurrengo jarduerara jo ahal izango du.

Jokoaren mekanika bat eta bera da ariketa guztietan eta, ondorioz, haurrak ez du helduaren laguntzarik behar izaten.

PENTSATU ETA ERLAZIONATU

Jarduera sorta honetako ariketen bidez behaketa eta dedukzio gaitasunak lantzen dira.

Txikientzat prestaturiko jokoa denez, erabilera errazekoa egin nahi izan dut, eta horregatik, bi botoi bakarrik ikus daitezke joko honetan, bata, hurrengo ariketara igarotzeko gezia eta bestea irteera atea. Izan ere, jarduerak berez igarotzen baitira batetik bestera, ikasleak erantzun egokia eman ahala.

Sarrera botoian klik eginez aurkezpen pantailara sartuko gara eta irudiaren gainean klik egindakoa jokoa hasiko da.

8 ariketek osatzen dute jarduera sorta hau:

- Pantailan bi lehiatila agertzen dira eta horietako bakoitzean hiruzpalau irudi.

Haurrak irudiak behatu behar ditu eta pentsatu zer erlazio izan dezaketen elkarren artean. Halere, irudien artean dagoen erlazioa ez da beti bera edo tankera berekoa eta haurrak berak ondorioztatu beharko du zein den. Aurkituko dituen erlazioak honelatsukoak izango dira: "Espezie berekoak dira", "gauza bererako balio dute", "ingurune berean ibiltzen edo bizi dira", "elkar osatzen dute", etabar. ...

Jokoaren mekanika berbera da ariketa guztietan, beraz, haurrak ez du helduen laguntzarik behar izaten, mekanika hori ulertu orduko.